

ZER

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

106n. Zenbakia. Epaila/Martia
1987

**IRUDI EDERRA,
BILBO'RA BEGIRAI
ARERIOAK EURENA
ZARALA DINOE
GUK BA-DAKIGU
GUZTIONA ZAREANA**

**KARDABERAZ'EK
ZURE EZKUTUKIA
AGERTU EBAN
SAN ANTON ELEIZAN
INGURUETAN LENENGOZ**

**ZABALDU MAITASUNA
EUSKALERRIAN**



BULTZAKADA

Ez dogu euzkera erriketaz, politikaz nastu nai, euzkera euzkotar guztion izkuntza izan bear dauana dalako, era batekoa edo bestekoa izan bakoitzaren gogaia, baiña, euzko abertzaletasuna euzkera arloan sartzea, ez dogu erriketa lez ikusiten. Gure izkuntza orain-arteko maillan aurkitzen bada, eskerrak abertzaletasunari da beronek emon dautsan bultzakadagaitik, azkenengo larogei ta bat urteonetan, Arana Goiri'tar Sabin'k EAJ sortu ebanetik geiago.

* * *

Azkenengo urte oneitan bearbada Euzko Alderdi Jeltzaleak pizka bat arduratu barik euki dau izkuntza-arloa, Euzkadi-aldezko beste zeregin garrantzitsurik asko beren lepoan izan ditualako, baiña, ori ta guzti be iñork ezin leike ukatu, jeltzaleak izan dirala euzko Ikastolak sortu dituenak eta euzkera indartu ta bultzatu leikeen arlo guztietan geien bat alegindu diranak.

Aurrerantzian, baiña, sakonago, sutsuago indartu nai da euzkera eta, aurten ziurki ospatuko dan Euzko Alderdi Jeltzalean Bilduma Nagusian, euzkera aldezko txosten garrantzitsu bat izango da aurkeztua, onezkero gerturik dana euzkaltzale jator talde baten bitartez eta, aurkezpen ori egin baiño len bearbada aldakuntzen batzuk izan leitekez, eta, ajolagarria izango da txosten orretatik artuko dana. Ara emen txoste orren "OINARRIAK".

"Euzko Alderdi Jeltzaleak bere sortzalle eta irakasle dauan Sabino Arana Goiri (nik onetara idatziko neuke: Arana Goiri'tar Sabin) aundiaren bideari jarraitzea naiko dau Alderdiaren euzkeraren sustapenerako egitasmoak oiñarri sendo eta aberatsa izan dagian.

Sabino Arana Goiri ez zan uts-utsean euskeraren alde jarri zan gizona. Seriotasunari dagokion moduan zezena adarretatik artu eta euskera ikastera eldu zan. Zelan ikasi gaiñera!

Sabino Arana Goiri'k ez eban naikotzat jo bere burua euskalduntzea; bere bizitza laburra be euskeraren ekin-tzalle batena izan zan".

Lenengo atalak, Txosten orretan onetara diñosku:

AURKEZPENA


"Txosten onek lau elburu ditu bere asieratik bertatik:

1. Euskeraren inguruan Euzko Alderdi Jeltzaleak dituan erizpideak tinkatzea.
2. Euskalgintzak gaurregun bizi dauan egoeraren azterketa politikoa burutzea eta plazaratzea. (Erriratzea esango neuke nik).
3. Euzko Alderdi Jeltzaleak bere etxe barrura begiratzuz, alderdikide eta burukideen artean euskeraren erabile-ra geitzeko eta sendotzeko asmoz aurrera eroango dauan politikaren ardatz nagusiak jartzea.
4. Euzko Alderdi Jeltzaleak, bere eskuan dituan erakundeak eskatzen dautsoezan baliabideak erabiliz, euskeraren sustapenarako bultzatuko dauan egitasmoa zeatzea".


Onein antzerakoak dira urrengo atal guztiak edo, bearbada ajolagarriagoak, baiña, ezin gara txosten ortako atal guztiak barriz idatziten asi, ZER guztia bearko litzakelako dana argitalduteko.

Txosten orretan darabilen idazkera, ulerkorra da nai-ta erderakada itxusi batzuk eta ainbat H'z orniduta aurkitzen dan. Dana dala EAJ'n Bilkura Nagusi orretan txosten ori ontzat artzen bada, ta baietz uste dogu, bultzakada bikaiña emongo jako beren bearrean aurkitzen dan gure EUZKERA maitegarriai. Ea 1987'gn. urtea izaten dogun euzkeraren urtea.

GOSEA MUNDUAN



JAINKO JAUNAK mundua danentzako egin eban: danentzako bizi-lekua eta egoitza; danentzako janariak eta edariak... Baiña, beti izaten da, besteerenak bereganatzeko ibiltzen dan baten bat. Berak bi edo iru edo lau... eta besteak bat be ez.



Martiko eduzkiak lurra berotzen dau goizetik eta berotasun orrekin, lurpean dagoen azia esnatzen da lozorrotik.

Lerroak berutz luzatzen ditu eta gorputza gorutz argiaren billa.

Badator Udaberria eta ernetzen asteko ordua!

Tomate azia da eta laister agertuko da lur-azalean eta arbolatxo baten antza artuko dau eguzkiaren eta euriaren laguntazaz.

Agerpen zoragarria izango da.

Aitak, ordea, esan eutson, il aurretik, gizonaren asma-kizunekin kontuz ibiltzeko.

Gizona gaiztoa dala eta pozoi txarrak botatzen dau-tsozala tomatearen landareari.

Beneno edo pozoi orixka bat eta kontuz ibilteko.

Gaiñera esan dautso gizona tontoa dala, pozoi oneik bere kalterako diralako.

Baietz, baietz esan dautso aitari: kontuz ibilliko dala.

Baña, amorratzen dagoela tomatea noiz agertuko dan.



Azia erneta landara biurtu da eta landararen eginbe-rra, loratzea da.

Sortu dau lora oria, polita eta panpoxa, tomatearen itxaropena.

Lora orretatik aterako dan tomatea zein ederra eta gozoa izango dan...

Baiña, momorroa deuka begira-begira.

Zer begiratzen dau momorroak?

Lora ori orretatik aterakò dan tomate gorria.

Tripak mar-mar egiten dautsoe gosearen gosez eta mar-mar orreik ixildu nai ditu...

A zer janari gozoa izango dauen egunen batean...!

Bai orixe!

ARAZOAK



Lorettoa zimeldu da eta asi da tomatea agertzen. Apurka-apurka gizendu da. Lenengo berde, gero gorritzka; aizkenerako gorri-gorri...

A, zer tomate ederra...!

Onekin illebeterako daukat.

Eta onek ez dau pozoirik.

Garbi garbia dago. Gustiz garbia...

Sartuko dautsot nere eztena barruko zukuia edateko.

Au poza...!

Sartu dautso eztena pozaren pozez...

Zukua atera dau eta edan:

Zer dau zuku onek?


Txorabiatzen asi naiz.

Jausi egingo naiz...

Tomatetik lurrera jausi eta bertan ilda gelditu.

Azalean pozoirik ez ba'dauko, zer dau tomate onek orrelan mozorroa akabatzeko...?

Aldaketa bat egin dautsoe tomateari eta gizonentzako ona izan arren, momorroentzako da kaltegarri.



IPUIÑAREN AZKENA

Munduko Gosearen Aurkako Kanpaiña onetan ba-dauko gizonak zer egiñik. Izaki bakoitzak bere jenemoltzoa bereizia dauko. Jene orreik izaki bakoitzaren programazioa egiten dabe: zuk ipintzen dozu labadora bere programa batean eta badakizu aurrera joango dana, naiz eta zuk etxetik alde egin. Berdin gertatzen da bizi diran izaki guztietan.

Baiña, zuk jene-moltzo orretan beste izaki baten jeneak sartzen ba'dozuz, orduan aldaketa bat izango da. Ori igalietan eta lurreko frutuetan egin ezkerro, izugarritzko landara ederrak eta aundiak egin geinkez.

Alde batetik, aundiagoak eta ederragoak; beste aldetik, berriz, aalmen obeak eta indar obeak. Esate baterako eremu eta desertuetako landaren jeneak besteai sartu ezkerro, onek obeto eutsiko dautsoe legorteari; berdin gatz lurren inguruko landareen jeneekin be, beste landareeri eman geunskio gatzaren aurkako indarra; eta berdin mozorroen aurkakoa be eta onelan ez da bearrezkoa izango landareeri mozorroen aurkako pozoiak eta benenoak ematea...

Tomatea, *supertomate* egiten dogun bezala, garia

supergari egingo dogu, meloia *supermelo*i eta abar eta abar...

* * *

Bide orretatik aurrera joanda, mundu osoaren gosea asetzeko ordua gizonen eskuetan dago. Baiña, beti izaten baiñaren bat, "injenieri molekular" deritzan lan orretarako, dirutza aundia bear da.

Dirutza aundiak Multinazionaleetan izaten dira beti. Multinazionalak, ordea, diruari korritu ederrak ateratzeko sortu dira eta ez Miserikordiazko lanak egiteko. Orra zergaitik, injenieria orren onurak erri aberatsen eskuetara joango diran, erri txiro eta pobreen kaltean...

Erri gosetuen eskaria auxa da: arraiña emon bearrean, kañabera bat arraiñak arrapatzeko emon dagiola; uruné erri gosetueri bialduaren orde, bioteknologia ori mundu osoaren eskuetan ipiñi dagilla, bein betirako gosetearen arazoa konpontzeko.

¿Geiegi eskatzea ote da?

A. ARRINDA

KAMIÑAZPI'REN IBILLERAI ERANTZUNA

*Jauna, eriotz au arren emostazu;
koldarrentzat itxi larrosen usaiña.
Lauaxeta'k*

Gitxi-gitxi dira zuk baizen ondo Bizkai'ko euskeraz idazten dabenak eta beti pozik irakurri izan dodaz zure lanak. Mutilla zaitugu, izan be, erri-euskera jatorrez idazten.

Irakurtez, pozik irakurri izan dodaz, ZER aldizkari onetan, zatika agertu izan dauzkuzuzan *Lau urteko neure ibillerak* bere; baiña alako biotz-urri edo abertzale bildurtiaren sundea darioe.

Benetan doguz samingarriak azaltzen dauzkuzuzan atzerri-aldiko zeuen ibillerak: gose, egarri, ezbear eta abar. Neke asko izan zenduen, aurki, baiña suizkilluen erasoetatik urrun zengozen eta ori arnasagarria izan, batez bere bildurtientzat eta bada-ezpadako abertzaleentzat. Benetan irakurgai polita abertzale motel eta bioz-urrien ibillerak aztondua ezpa'litz.

Guztiak izaten dautsoe bildurra guduari eta, al izan ezker, batzuk egese egiten dabe berun ezkur eta lerkaiak dabizan inguruetatik. Beste batzuk, oster, guduari sots-emoteko aukerea izanarren be, euren xede ta gogaieri jarraituz, gudara joaten dira, aberria aldeztzen, gurean izan zanez. Egiñen aundia da, izan be, gero, abertzalearentzat, aberriaren alde jokatzera, naiz-ta norbere burua galzorian jarri. Eta koldarkeria baizen saldukeria aberria galtzorian daitenean norbere egin-bearrak zapuztuta burukoikeriz eges-egitea.

Bildurriak ziñelako iges-egin zenduela? Ez uste, gero, geuk bere bildurrik izaten ez genduanik geu baiño milla bidar altsuagoak zirean etsai ankerren aurka ekiteko; baiña, abertzaleak giñan, benetako abertzaleak, eta aberria bearrizanean aurkitu izan zanean, naiz-ta bake-zaleak izan, gorputz eta arima sartu izan gintzazan, gudu, maite genduan askatasuna aldeztzen. Naiago izan genduan, ba, bizia galdu, etoikeriz iges-egin edo koldarkeriz ezkutau baiño.

Gose-egarri, oitu bagako baso-bear gogorretan-eta, ezbear asko izan zenduezan, idatzi izan dozunez. Benetan mingarria atzerri-aldiko zuen bizikerea, gizona! Baiña gudadik urrun eta eskier zengozen eta ez gu lez Erioa erpe

zorrotzakaz beti betaurrean genduala, goitik beredin egontziren eraso, aurre ta aldamenetatik suagakada ta berunbil erailkorren zaparradak, gau ta egun, eten bagarik genduzala, batean mendietako lugana-zuloetan sartuta eta beste batzuetan geure buruak ezkutetako be tokirik ez genduala, etsai anker eta gogorri geure izkillu urriakaz al genduan eran eusten. Eta errian egun batzuk egiteko erea izaten genduan be, egontzi ankerren erazoan bildurrez, batean babestokietara, arrapaladan, eta bestean lerkaiari igesi. Zuok, oster, *abertzale zintzook alakook*, atzerrian, eriotzearen bildur barik, nasai, aberria zoritxarpean itxita. Ezagutu izan neban, bein, olango *abertzale zintzo-zintzo* bat Arana-Goiri'ren *Mendiko negarra*, tamaltasun ikasiz, negar egin bearrak abesten ebana be.

Estutasun andiak izan zengikeezan, zuek, erbeste-aldi atan; baiña etzenden, guk sarri egin izan genduan, maitasun-damuzko otoitzik egin bearrak izan, egontzi-taldea, edoiak betean, lerkai-urtika, eriotzea ereiten, joan-etorrian, buru-ganean genduzala, azken-ordua, orduantxe, izan zengikeala uste izanik. Ez aurrez-aurre etozan suagakaden batek noz joko ete-genduzan, ikaraz. Ez aldameneko lagunik kutunena berun-ekur zorrotzak jota jausten ikusi. Ez otz-berorik, ez izerdi-larrik, ez benetako gose-egarririk ez burrukaldietan ildako gudari-lagunen gorpuen ondoan gau itzel areitakorik egin bearrak.

Itzela ta ankerra da, gizona, gudua! Zuk zeuk ez daki-zu zer dan suzko gaberdi anker baten, ni neu jausi izan nintzanez, Lerkaiak anka-artean eztanda-eginda, iztarretatik beazetara zauriz josita, gorputz guztia odol-iturri egiñik, su ta *metralla*-artean, lurra jotea. Ez lau illebetean zirkiñik egin eziñik eritegirik-eritegi erabillia izatea eta, gainera, ogetxu gogorrean arat egon bearra; eta, gero, lelengo trakuluekaz eta gero makilleaz, urtebetean, urgun (errenka) ibilli bearra. Ez gosaltzeko iru iko melau eta baskari ta aparitan kokoz beteriko barbantzu edo abereeri bere ler eragingo leuskioen *tito* eta *algarrobak* jan bearra, lekoretik (kanpotik) ezelango jakirik sartzen izten ez ebela.

Zeure idatzian diñozunez, toki estuen baten egon bearra bere izan zenduen... Ba, gu geu, neurkin bi inguru luze eta etzunda gizon baten luzerea zabal eben, batentzako egindako ziega estu-estuetan, sei egoten gintzazan eta bost bakarrik egoten giñanean, pozik, nasai gengoza-ta. Eta, bee gogorra estu-estuka lo-egiteko, urte luzeetan. Ba'daki-

GUDALDIA

zu zelangoa daiteken edurra zara-zara lekorean eta espe-
txeko ormatzarrak izoztuta direala, zorriak kentzeko, ur
otzaz *dutxea* artzea eta onetarako be zeure aldia eldu-arte
otzaz dar-dar itxaroten egon bearra, irolerako be egon
geroiazanez? Eta, ba'dakizu asteriaz (sarneaz) zelango
egon eziñak izaten direan? Beste jazoera negargarri asko
ta asko bere azalduko neuskizuz, luzeegi ezpa'litz.

Ezin zeinke ezelan bere jakin, gizona, zelangoa izan
daikekean, gu euki genduezan atxillo-zelaietako egoerea ta
eritetxe ta baitegietakoa. Oraintxe bere, oindiño, zutunik
jartzen yataz uleak, Larriñaga'ko espetxe zikiñean gau
illun eta baltz areitan erailteko eroaten ebezan aberkideak
(*zuok, abertzale zintzook*, aske ta eskier zenbizen artean),
aberkideak oguzten ebezan eriotza-aurreko deadar tamal-
garriak gogoratutik. Baiña, benetako maitasuna geuntsan
aberriari eta geure gogaien (idealen) indarrak azkorturik,
bai guduan eta bai atxillo gintzazala, aurrera begiratzen
genduan, adorez, kikilduta geratu bagarik.

Bein-edo izan daroa bere bizian, gizonak, gizontasuna
benetan erakusteko aukerea eta aukera areri iges-egiten
itxi ezker, nekez edo iñoz bere ez dau bereganatzen gal-
dutako zintzotasuna.

Ez esan edo idatzi, ba, abertzaleak ziñeenik ez gudara-
ko bildurra zenduenik. Ez uste, gero, geuk bere bildurrik
izaten ez genduanik, leen bere idatzi dodanez, etsai amu-
rratu arein tresna ugari, bildurgarri ta erailkorren aurrean.
Gure gudari-lagun bat dar-dar egon oi zan, luganan, *pusi-
lla* eskuetan ebanean, baiña antxe iraunten eban, besteok
letxe, bere egin-bearra betetan.

Artxanda-mendira joateko gintzazanean neu bere
errez ezkutau nintekean, Begoiña-aldean, eta sots-emon
gudeari; eta orain, bear ba'da, eguraldia aldatzen dan
bakotxean ankako miñaz ibilli bearrik neban izango; baiña
gurago dot ankako miña izan, neure egin-bearra koldarke-
riz zaputzearren gogoia kezka betetik dodala bizi izan
baiño.

Gudu zikin aretan sartu izan ezpa'giñan oba izango
genduala? Koldarrak esan daroez olangoak, euren egiñen
kaxkarrak zuritzeko. Alegiñik egin barik, koldarkeriz, abe-
rria birmenperatzen itxi izan ba'gendu, orduan, gaur egun
dogun askatasun-zatia geureganatuko ete-genduan? Ezetz
uste dot.

Odolik ixuri barik ez dot uste askatu izan danik, abe-
rririk; eta guk emon izan genduan odola be ez dogu uste
alperrekoa izan daitekeanik. Abertzale epel eta ketoak ez
dabe askatuko iñungo aberriarik...

“Koldarrerri buruz ez da ezer idatzi izan” esan oi da
eta koldarrak eurak euren *koldarkerizko ibillerak* egikizun
edesgarrizat idazteari be ez deritxat egoki.

Idazlan onetan nik idatzitakoakaitik ez dot uste aserre-
tu zeintekezanik, adiskide. Aberriaren askatasun-alde
gudan ibillia nazenez, zure lau urtetako egunkari edo dana
dalako ori erantzun berrekoa dala uste dot-eta.

Geuk bere idatzi gengikezan gudu, atxillo-zelai, erite-
txe ta baitegietakoa jazoerak baiña, guk geuk, orretarakoxe
bere aukerarik ez genduan izan: batean suizkilluen eraso-
pean eta bestean espe-zaiñen zigor-pean gengoan ba-ta.

Neke, samin eta oiñaze, osatu zirean nire soiñeko zau-
riak baiña *betiko* geratu ekidazan (yatazan) gudu anker
baizen negargarri arek bere eraso gogor eta erailkorrakaz
gogoan ezarritako zaurien lorratz minbera ta goibelga-
rriak.

Zuk argitara izan dozuz zeuen ibillerak eta, naiz-ta
biotz-urri batzuen ibillerak izan, geure aberriaren edestiari
dagokiozanak direan ezker, ezin naitekean erantzun ba-
rik geratu geu bere edesti orren zati eta, ganera, iges-egin
izan zenduenena baiño zati andiagooa, egokiagooa ta aintzat
eukitekoagooa gareanezkero. Iraukurleak esan begie zein-
tzuea izan zan zentzunezko jokabidea eta zeintzuk, zuok
ala gu, gengoan zuzen.

AURRE-APRAIZ'tar BALENDIN

IBILLALDI BAT

Ikasmin gareanoi, asko dausku erakusten ibilliak. Iza-
tez gara barrizale, eta jakiñe ibilliz gauza barriak begi
aurrera jakuz etorten, biotz zauskadak be ibilliz ta ikusiz
uiol antzera ugaritzen. Egia esan, ibiltari batetik bestera
alde aundia dagoala, autortu bear. Batek, egun osoa uriz
naiz mendiz erreta be, ez dau ezer batzen; beste bat, erle
langille iduri, eztigaiz bete-bete egiñik datorkigu etxera.
Ikas daigun ibilliari guna ateraten.

Lengo arratsaldean, bostetan, tiiirrin... telefonuak.
Nire ikasle zan, eta giro ba'litz, Gorbeia'ra joan nai leuke.
"Biar bederatzi t'erdietan, or izango naiatzu", esan eustan.
Egin-egiñean be, itz emona betetea atsegin jakona dozu-ta,
emen neukan bere burdi bizkorraz bederatzi-bedera-
tzietan.

Baiña ez giñan Gorbeia'rako bidean jarri: egun laiño-
tsua etorren, eta mendian zerbait ikusi ta ikasi nai izan
ezkero, eguraldi argia bear. Eta bertatik len-egitaraua
aldatu ta barria osotu genduan, Zornotza'tik urten baiño
len. Gure ibillaldia, au izango da: Argiñeta, Karabieta,
Arantzazu, Sandaili, Apotzaga'ko ilerria, Dorleta, Alber-
tia, Elosu ta Atxuri...

Argiñeta. Elorrio uri prestua dozu. Aintxiña baten eta
gaur. Lau ederrean kokatua, mendiz —Intxorta, Udalaiz,
Anboto— inguratua; jauregi apain ugariz betea, gizaseme
jakintsu ta jatorren sorleku, gaur ainbat lantegi ta fabrikaz
jantzia; birako gaintxoetik begira, zoragarria emon-
ten. Onako muiñotxoan daukazu Argiñeta. Ni ikasle nin-
tzala ementxe Larra'n, bein Zaldibar'erañño trenez eta
andik Gatzaga'tik zear oiñez etorri gintzazan talde azitxo
bat emengo illobiak ikustera. Nire lagunak, inguru-
errietako askok lez, etzitun ezagutzen tokiok.

Erriko plazan zuzen artu ta beingoan gengoan San
Adrian ermita ondoan. Gizon zintzo bat ebillen berton,
arotz lanean. Txeratsu artu ginduzan, eta guk bera.
Oraintxe zortzi bat urte barrizturiko eleiza erakutsi eus-
kun, eleiza ta santuai buruz naibeste barri emonez; baita
gerra-aldikoak ba, amasei urtekoa zan bera ta emen be,
alboko mendietan jakiña, izan zan zaparradarik.

Aspaldiko aretxeaz beterik daukazu ingurua. Eleiz-
aurrean dagoz, ostera, IX'garren gizaldiko amabost bat
arizko illobi. Arlosa zaal luzeak dira, azpikoa ta gaiñekoa
barruz utsik, bien artean gorpua egokitze. Guk eginda-

ko ainbat itauni erantzunik, ainbat barriren jabe egin gin-
duzan, danak misterioz beteak. Oraintsu arte San Adrian
Alkartearenak ziran inguruok, orain Elorrio'ko Udaletxea-
renak. Sorginduta lez andik alde egin eziñik egon ondoren,
aldatz-beera Elgeta'ra bidean gu.

Karabieta.—Elgeta'tik kilometro batera lez dago au,
Eibar'erako bidean, Askonabieta'ri dautsola. Gerra aldian
emen egon nintzan ni, "Kirikiño", batailloko kapellau,
lenengo Kanpanzar'tik Elgeta'ra, Intxorta azpian, eta gero
Elgeta'tik Basalgo'ra bitartean, Asensio-mendia aurrez-
aurra ta Ubera erdian gendularik.

1937'ko apirillaren 25'an, igandez, ementxe nenbillen
ni goizeko bederatizak inguruan neure gudariai mezea
emoteko bear nebazan tresnak gertatzen. Goiz laiñotsua,
Elorrio'ra sartuak ziran nazionalak, baiña ez genduan uste
guganaiño orren arin urreratuko ziranik. Laiño artean tiro
ta tiro itxituan jausteko zorian agertu gintzazan, baiña
eutsi ta eutsi, arrats-beran andik Eibar'arantza iges egin al
izan genduan. Eta urrengo goizean, eguna argitu-ala,
Arbazegi'n agertu giñan.

Ainbat urte joanda gero, tokiok zelan aurkitzen ziran
jakiñagureak berez kilikili egiten izate barruan. Guztiz
aldatuak idoro nitun, baiña beste baten astiroago etorteko
asmuz alde egin genduan andik.

Arantzazu.—Nire adiskideak bein erakutsi eustan
Arantzazu barriz ikusteko guraria. Ni, ostera, adiskideen
naia beteteko beti gertu ta prest naukazuna izan. Amabiak
ziran ara giñanerazko. Giro ederra; eguzkiak orduko bere
gezi-zizta goxoz zauritu ta uxatuak zitun arkaitz arteetako
laiño narrasak be. Kotxe pilloa, ta jentea etorri ta etorri:
Arantzazu'k ba-dau bere erakarpen lillurakorra.

Guk be erakarpen orrek eroanik, Andra Maria'ren iru-
di aurrean otoitz-egin dogu euskaldunok, ain buru-ariñak
izan barik, batasunean bizi gaitez. Eleiz zabal ederra,
apain orobat Muñoz'ek arretaul jagian ipiñi ebazan irudi
abstraktuak; korua miretsi dogu, eta autortegiak, eta jarle-
kuak; kanpokaldean, barriz, aurreko oroigailu jasoa
amairu irudi sabel utsakin, Oteiza'k egiñak. Eskumatik
kriptara jo dogu, otoitzerako ta Kristorekin topo egiteko
leku egokia. Ormetan Nestor Basterretxea'ren irudiak,
esannaiez aberats, "gizona gizonaren etsai" gogor eta ola-
koz bizi-bizi.

GURE LURRA

Nik liburu batzuk neroiazan Aita Gandiaga'rentzat. Ez dago etxean Potes'ko Liebana'n ikasaro jarraikoan aurkitzen da-ta. Aren orde z Aita Prantziskotar gazte alai batek artu gaitu: ikustez joan eta ondo artzeak asko esan nai dau. Oni emon dautsodaz neure liburuak. Eta Arantzazu'ri agur gozoa egiñik, Araotzaldera.

Sandaili.—Aitz-arteko trokan zubia eta alboan: “Araotz auzoa” diño kartel batek. Aurrera jarraituz, antxiñako urmaela utsik, eta ezker-aldera, bide gaintxoan Sandaili koba-zuloa. Leentasun-kutsuz betea. Oraintsu, 1980'an, barrizatua. San Elias'en ermitea, iñoiz garrantzi aundikoa. Bertara eldurik, arkaitz eskerga-pean, etxea bat bizilekua, ezkerretik, eta eurrez-aurre ermitearen sortalde alderdia ta santu-zaiñaren bizitokia, atea ta lau leiokin; igon kobaruntz eta eskuman ermitea, San Elias eta beste irudi bi altaran dirularik. Ezker, koba-atari zabala, mai ta arrizko zelai-unez. Aurrez aurre, arkaitz-zuloaren zintzurra, aundi ta illun. Nik Sandaili kankak gogoan, ots, “Ala Zalagarda” ta “Santa Iliak atek ditu zizarrez”.

Andik alde egiñik, ordu biak dirala-ta, bazkari-izkia dagigu bide egalean. Eta, itzultzean, Oñati'n, bira batzuk egin dautsoguz angó euskal Ikastetxe zarrari. Ederto zaindurik dago, kanpotik beintzat.

Illerria.—Urte batzuk dirala Apotzaga'ko kanposan-tuak ospe aundia beretu eban, txukun be txukun jarri ebelako. Tokiz ederto; eleizatik ur, eta erriaren erdian; bidea bertaraiño; katez loturrik atea ta aretx urtetsuak ertzez-ertz. Sarreran, bateo arri landu aundi bi. Borobilla da, ez aundi ez txiki, illobi guztiak buru aldetik il-arri biribil landua, sendikoen izanaz: ogei guztiz.

Oro-ar, ate, zugatz, orma ta obi, txukun atsegiña. Jatetxe barri bat alboan. Eta Eskoriatza'tik araturiko mutil koskor taldea, eguzkitan jolasle.

Dorleta.—Beko bide-gurutzean eskumatik artu dogu, Leintz ballaran. Or Gatzaga aldatzean. Polita entzute aundiko etxeak ditun erritxo au; etxeak barriztuta ba'legoz, obeto. Aldapan dago kokatua, ta eleizea bera be naiko arrakalata kanpotik beiñik-bein.

Beerago Dorleta, Andra Mariaren toki ixil zoragarria. Erabarrizten diardue, ta ez gara sartu, tramankulu ta tresneriz kuin-kuin bait dago: urrengoan ikusiko. Ezkontza asko ta asko egiten dira berton: Araba'ko ta bertokoak ementxe ezkodu nai.

Albertia.—Landa'n kotxe ta jente ugari, eguzki-gose ta tripazain. Neu be Gasteiz'en bizi nintzala ona etorten nintzan ezker, areik egunak gomutamesean biztuazten. Arrasti garbia, eguzkia aurrez dizditsu. Legutiano berton; or menditxoan, zugatz artean azken-gerratean jausitakoei eskiñitako oroigailua, oso bitxia.

Ni neu ez nintzan emendik ibilli. Baiña euskaldun asko jausi ziran emen. Sasiz, piñuz ta aretxez beterik dago gaur; orduan ez egoan piñurik, baiña gaur tente daukaguzan aretxok, ordukoak dira. Arlaban azpian amaikatxo su ta tiro ta eriotza ikusia. Emen jausi ziran emaiak gogora dakarguz, otoitza ezpain-gaiñ. Jentea dabil inguruan perretxiku billa. Nire lagunak be, zalea da-ta, egin dau ingurumari bat.

Elosu.—Araba'ko erriska polita, gaintxo batean jarria. Gazteak irakurten eliz-ondoan; lugiñak solo ta inguru, abere arduraz. Gerran, erritxo au arrapatu nairik elegeiñak egin ziran, baiña Legutiano'ko eleiz-torrean egoan ametraidora bategaitik, ezin izan genduan berau menderatu.

Atxuri.—Onan deitzen jako Saldropo gaiñean, Gorbeia'rako bidean dagoan arkaitz-mokor aundi bati. Onen ostetik, oraintsu ebagi dabe arako bidea. Ta guk ori ikusi nai. Andik ibilli giñan, baiña gu ara orduko gau-itzalak jaubetu ziran inguru guztiz.

Eta, azken-gurari au bete barik, etxeruntz artu bear. Izadi ta gizadi barruan, guk bai egun zoragarria emon. Zuk be, irakurle, geure lurra ezagutuz, beste orrenbesteko poza ta atsegiña izan daizun, idazten dot lan au.

AITA ONAINDIA



SORGIÑAK (II)**SORGIÑEN EZAUGARRIA**

Ez da gauza gatxa nor dan sorgiña ezagutzea.

Ba-dira pertsonak nortzuk diran sorgiñak errez eza-
gutzen dabenak.

Ezkerreko begian barru aldean, begiko baltzaren gai-
ñean, zapoaren esku antzeko zerbait dauana, ori sorgiña
da.

SORGIÑEN KALTEAK

Baiña sorgiñ oneik egiten dabezan kalteak ezin errez
esan daitekez.

Pozoin-berenez gizonak, emakumeak eta umeak ilten
dabez, baita euren seme-alabak be.

Au egi-egia da, eurak autortu dabelako.

Biraoak esaten dabezan bitartean ezkerreko eskuaz
pozoin-berenoak botaz, mendiko ezkurak eta soloetako
gariak ondatu egiten dabez.

Jakin begi, Jauna, udan trumoiak jo eta ekatxak lai-
ñoetatik arria botaten dauanean, sorgiñak dirala soloetako
frutuak galtzen dabezanak. Onelako gaiztakeria guztiak
sorgiñak egiñak dira.

Eta sorgiñak kalte oneik egiteko euren etxeetatik alde
egiten dabenean, euren etxeokak ez dakie ezer, bada, etxe-
tik doazanean euren familiakoai lo eragiteko gauza bat
emoten deutse, eta onan, iñor konturatu barik, ziur joan
eta etorri daitekez.

Sorgiñak ezkonduen artean be kalte andiak egiten
dabez, senarrai euren emazteakaz ez alkartzeko, loturak
jarriz.

Eta zenbat eta gaiztakeria andiagoa egin, ainbat eta
pozago dago deabrua, eta onek sorgiñai sari andiagoa
eskeintzen deutse.

IRUÑAKO SORGINKERIA

Iraillako Santa Kurutz gauaz, Iruñan eta bere ingu-
ruan ekatx gogorrak jo eban, iru-lau orduko uriolaz, urak
errotak, maastiak, zugatzak baita ibai ondoko etxeak eta
lantegiak, danak eroan ebazan. Ondamena ikaragarria
izan zan.

Jakin begi, Jauna, eta au egi-egia da, sorgiñak eurak
autortu dabelako, gau aretan Naparroako milla sorgin,
gizon eta emakume, Iruña inguruan bildu ziralako, kalte andi
ori egiteko, eta ez ebela kalte andiagorik egin, kurutz zuri
bat bapatean agertu jakelako, eta ezaugarri santu onen
bidez, bildurrez, bakotxa bere bidetik euren etxera joan
ziralako.

Nik, Jauna, kalte oneik eta antzekoakatik, sorgin asko
espetxean sartu dodaz.

SORGINEN ERIOTZA

Eriotzaren aurrean be sorgin oneik ez dauke bildurrik,
bada, deabruak sinistu erazoten deutse, sugarretan ilda be,
berak ostera be biztuko dituala, beste batzuekaz egin
dauan legez.

Baita deabru-akerrak esan deutse ni iltzeko aalegin
guztiak egiteko, bada, nirea egin ezkerro aurrerantzean
bakean biziko dirala.

Ez daki, Jauna, nire eginbear au zein gogorra dan,
bada, egunero deabruaz burrukan ekin bear dot, sorgin
oneik euren gaiztakeriak autortu dagiezan.

Auzitegira eroaten dodazanean ikaragarritzko biraoak
esaten dabez gure Jaunaren aurka, eta nik eskuetan dau-
kadan kurutzearen aurka txua botaten dabe, baina euren
gaiztakeria ondo ordaintzen dabe...

SORGIN BATZUK DAMUTU

Egia garbi autortu dagiala eskatu neutsan alako sorgin
bateri, eta lan onetan nik lau ordu emon ondoren, berak
esan eustan, egia ez esateko deabruak agoa itxi egiten eu-
tsala, eta mesedez, meza bat bere alde Santa Julianaren
izenean, esateko.

Eta meza ori esan ondoren bere gaiztakeriak autortu
ebazan, eta damututa, Jaunagaz pakeak egin.

BESTE SORGIN ASKO

Nik, Jauna, sorgin batzuk arrapatu dodaz, eta merezi
izan dabena artu dabe, baiña beste asko aske-libre gelditu
dira.

Eta sorgin oneik non bizi diran jakiteko, au da biderik
egokiena: iñon gari soloak, eskuekaz ukutuz auts biurtzen
badira, edo mendiko ezkurak lora baltza emonaz, ustel-
tzen badira, edo ume txikiak ito egiten ba'dira, ziur-ziur
lurralde aretan sorgiñak bizi dira.

Gauza guzti oneik, Jauna, idatzi deustadaz, berorrek
jakin, eta kentzen aalegin guztiak egin dagiazan...

Eta barkamena eskatzen deustak egia guzti oneik adie-
razten luzea izan ba'naz, bada, danen onerako dirala uste
dodalako idatzi dot emen ipiñi dodana.

(Jarraituko dau)
GOIKOETXEA IÑAKI

EUZKO-DEYA (1916-1923)

EUSKERA UTSEZKO ALDIZKARIA, ORAIN IRUROGETA AMAR URTE SORTUA

Lau urte inguru joan dira ZER onen orrialdeetan EUSKALTZALE (1897-1899) eta IBAIZABAL (1902-1903) aldizkarien barri emon nebanetik. Aldizkari biok euskera utsezko lenengo aldizkarizat emon nituen, Gaiñera, biak Bizkaian eta bizkatarren gogo beroak sortuak. Artean, ez zan sortu euskera utsezko aldizkaririk ez asterokorik, Izan zan, bai, Urtekari bat, Fedearen Hedamenekoa (1877-1920) Joannategik eta beste batzuk sortu eta zuzendua, mundu guztiko misiolarien barri emetokoa zana; baiña frantzesezko ANNALES batetik euskeraturiko lan batzuekaz ornitzen zan, Eskualduna astekaria ez zan euskera utsezkoa; beti ekarren erderazko lanen bat, orain aren jarraitzaile dan HERRIA astekariak ekarten dauan lez.

Beste aldizkari euskera utsezko baten aitamena dakargu baur, eta au be, Bizkaian eta bizkaitarrak sortua, 1916'tik 1923raño iraun ebana, Au be, gure laikoak sorturiko aldizkarietan euskera utsezko lenengoa da. Euskal-Esnalea euskera-erderazkoa zan, eta Jaungoiko-Zale (1911-1931), eta Irugarrengo Franziskotarra (1913-1936) eleizgizonenak zirean, praille-abadeen eragiñez eta erlijiozko asmoakaz sortuak, Euzko-Deya sortu zanean ez zegoan Euskalerrri osoan, erri-gizonak aterata, beste aldizkaririk ez astekaririk. Orain ainbeste sortu ta bizi diranean, ez dogu aitzu bear gure aurrelari izan eta, euskal-aldizkarien asikiñak emon ebezanen lana.

Euzko-Deya Euzkaltzale Bazkunaren ardurapean etorri zan, Bilbotar batzuen euskaltzaleatasunak eta abertzaleatasunak sortua eta eutsia da, euskaldunen izkuntzari Euskalerrrian jagokan lekua eta arnasa barria emetoko kaleratua. Ortik begikoago eta maitagarriago egiten jaku, eta euskaldunon aldetik esker ohea zoar jakolakoan nago. Euskal-aldizkarien artean aurrelari izan doguzanen ospea izan bear leuke.

Oso zabal ibilli dala uste dotu Euzkaltzale Bazkunaren aurkako marmarra, ganorabako lana egin ebela, ez ekiela euren euskal-eskola ta gramatikatik urtetan, ez zireala gauza euskereari kalean bizirik eta indarrik emetoko. Marmar ori ixiltzeko eta uste ori guzurtetako Euzko-Deya aldizkari au ez ete da naikoa? Aldizkari orretan idatzi eben idazleen izenak jakin ezker, baietz erantzun bear dogu. Politika alderdi guztiak beste ainbeste egin izan balebe, beste giro ta egoera biziago ta osasuntsuago bat sortuko zan gure izkuntzarentzat. Urte batzuetan aldizkari au izan zan aldizkarietan bakarria (eleizgizonen aldizkariak kenduta) euskereari eskubide oso ta beteak autortzen.

Otsaillaren amaseian, 1916n asi zan plazaratzen. Neguaren biotzean etorren, euskereari udabarri loratsua

opa eutsala. Amabostean bein urtetan dau: illaren lenengoan eta amaseian. Ale bako txak amasei orri ekarten ditu. Bizkaian eta bizkaitarren eragiñez urten dauan arren, beste euskalkientzat orriak zabalik daukaz. Gipuzkoatik eta Naparroarik euren lanak bialduta, ainbat idazle datoz aren orrialdeetara, lenengo zenbakitik asita. Euskerea ta Euskalerrria gogoan eta biotzean dabezala datoz, Jaungoikoa eta Lagi Zarra ikurrintzat artuta, Euskalerrria euskalduntzen gogatsu lan egiteko gertu, Euskalerrria euskalduntzat eta euskerea euskaldun guztien izkuntzatzat ikusi arte. Lenago egin ez dana orain asita egin nai dabe: "Erderra, eta erdal-gogua, euzkotarren gogo ta biotzetatik kenduta eurotan euzkerea sendo jarri. Sailla gogorra da, baiña eziaña ezta". Eurak alan diñoe.

Ez deuskue esan nor daben buru ta zuzendari; baiña maixutzat nortzuk artu dabezan, bai. Argazki ta guzti datoz euron lenengoko zenbakian: Arana Goiri, aita Arriandiaga, Eleizalde ta Kirikiño. "Eurei zor deutsegu, diñoenez, Euzkaltzale Bazkunakuok dakigun apurra, Eurak izan dira ta dira geure Irakasliak". Lau irakasle, lau maixu, bako txak bere eskolakoak, eta bi Bizkaiko euskerea landu izan dabenak. Baiña beste euskaldunai eta beste euskal-eskolakoari ez jakez atek isten.

Aldizkari barri onek zelango gaiak urratu eta landuko ditu? Era guztietakoak. Batzuk alai ta atsegingarriak: ipuin, olerki, izkirimiri eta abar. Beste batzuk jakintzakoak, ekonomi-saillekoak, baserri ta nekazaritzakoak, itxasoko gizonen arazoak, osasungaiak eta abar.

Albistari be izan gura dau Euzko-Deyak. Euskalerrriko ta mundu zabaleko barri batzuei euren lekutxo emoten jake noizik bein, beti ezpada be. Sail guztiak joratu nai dituela argi dago, guztien gogoko, batez be abertzaleen atsegingarri izan gurez.

Euzko-Deyak aldikada bi izan zituen: 1916tik 1920raño bata, eta 1921tik 1923rañokoa bestea. Bien artean urtebete inguruko eten-aldia dau. Zek ekarrita eten-aldi au? Bear bada, abertzaleen artean talde bi bata bestearen aurka sortuta, ABERRI-tarren eta besteen artean izan ziran eztabaidak ekarrita.

Euzko-Deiyan'n, Bizkaikoak bakarrik ez, giputzak eta naparrak be idazten eben. Bizkaitarretatik, idazlemordotxo dabil: Amilgain (Altuna'tar Joseba), Arrugain (Mikel Arruzza), Jadarka (Jemeindar Keperin), Aizkibel'dar (Bingen), Albizuri, Eleizalde (Bergararra, baiña euskalkiz Bizkaikoa), Arana Zabala (Mibisus), Enbeita'tar Kepa, Kirikiño eta abar. Lenengo zenbakiak bertsozko agur beroa ekarren, Enbeita izenpetuta, eta gero sarritan dator bertsolari onen lanen bat, Kirikiñok bere *Barriketak* sailla ia eten barik daroa; alkar izketazko lanetan.

Gipuzkoatik, beste idazle-mordo bat: Tene, Elzo-Aspiazu (asi ta lastertxo il zana), Zarautz-tar Sabin (ge-roagoko Lizardi), Ayerbe'tar P. Satarka (Sagarzasu'tar Kauldi) Zinkunegi osalariat eta abar. Azkenengo au Aian zan orduan osalari, eta andik bialtzen ditu bere lanak, osasungaiezkoak aurak zelan azi eta orretarikoak. Naparroatik Larreko (Irigarai'tar Permiñek) napar euskeraren otsak dakaz aldizkarira. Lenengo zenbakian Lapurditarren agur beroa be badakar.

Nik ez dakit zer dala-ta Lizardiren argitaratzaileak Lizardik Euzko-Deyan ateratako olerki bat bakarra emon deuskuen eta bera erderatik itzulia, dirudianez. Idazle onek bertsozko lan pillatxo daua Euzko-Deya orretan, eta bai prosazko beste batzuk be. Euzkaltzale- Bazkunak ba ekian beste euskal-eskola batekoak zireanen aldera askok uste daben baiño barru-zabalagokoa izaten. Eta, barriz, eztabaidako gairik ez aterateko jokabidea artuta eukaela dirudi, Aldizkariak lenengo aldia, 1920rañokoa, izan ebala esan geinke. Bigarren aldian, dotoretxoago agertuko da, papel obeaz, eta illerako egiñik; baiña luma gitxiagok eskintzen dabe euren lanik. Zinkunegik, esaterako, lan bi baiño ez ditu aterako, eta Larrekok bat baiño ez oso, mamitsua, orraitio. Aldi barri onetan amasei orrialdeko aldizkaria da, len amabikoa zana. Idazle barririk bat agertzen da, beintzat, Legoaldi (Ipolito Larrakoetxea), Zeanuriko semea, Kalahorratik bere Grimm anaien ipuiñak bialtzen dituen.

Egun pozgarriak izan zituen Euzko-Deyak, 1918n abertzaleak Bizkaiko Aldundian nagusi urten ebenean. Euskalerrria euskaldun egiteko aukerarik ederrena ikusi eben orduan. Kirikiñok be, ordurarte politika usaiñik agertu ez eban arren bere lanetan, orduan gora bota eban bere santzoa, euskerarentzat etorkizun ohea ikusiz.

Pozik agurtu zituen Euzko-Deyak orduko jazoera batzuk be: Oiñatiko Eusko-Ikaskuntzaren Batzar andia, beste euskal aldizkariaren, Jaungoiko-Zale ta beste batzuen aurrerakadak, euskerazko liburu batzuen agertzea eta olan. Bera be euskerazko liburu barri batzuen argitaratzaile eginda dabil. *Elenetxu* eta beste batzuk aldizkari onetan idazten ebenen idazlanak dira.

Bigarren aldiko 27garren zenbakian, 1923ko iraillekoan, aldizkariaren asieratik lankide izan zan Luis Elizalde zanaren il-barria ekarren, Amilgain'ek idatzita. El-barri au ekartean, ez eben usteko Euzko-Deya'koak aldizkariaren azkenengo zenbakia izango zanik. Ur euken, illean berean, ainbeste neke ta buruauste ekarri eutsen aldizkariaren azkena. Illabete joan orduko jagi zan Primo de Rivera eta onek egunkariaren euskal-atalak eta euskal-politika usaiñezko aldizkariak galerazo egin zituan.

Baiña ez da ori Euzko-Deya oni jausi jakon zoritxar bakarra. Ia ezbear andiagotzat daukat euskaldunen gogoan izan dauan eriotzea. Nok dauka gogoan? Nok egin deutso aitamenik?

Gaur Euskal-Bibliografia eder ugari baten jabe gara, Jon Bilbaori esker. Ikaragarritzko lana onek egin dauana gure liburu eta aldizkariaren billa eta bakotxaren zeaztasunak emoten. Euzko-Deya aitatu, bai, egin dau; baiña bigarren aldikoa baiño ez. Jakiña: lenengoa be izan zalakoa ateraten da, baiña ez noz sortu ez nozarte iraun ebanik ez deusku ezer emon. Eta bigarren aldiko Euzko-Deya'ren barririk oso gutxi: 1921-22n amabi zenbaki atera zirala, besterik ez. Eta 27garrena izan zan 1923n azkena.

Ordlatzi eben ainbaten izenak (Kirikiño, Eleizalde, Lizardi, Larreko, Sagarzazu, Elzo-Aspiazu, batzuk izentetearren), ez dira gure gure euskal pizkundetxoan edozelan-goak, eta ez daukaguz ate osterata. Baiña, batez, be, gure pizkunde ori zelan sortu zan, nortzuk biztu ta lenengoz bultzatu eben eta nondik norako bideak artu zituen ikasteko, noraezekoa da aldizkari onen bizia ta lana ezagutzea.

Bilboko Euzkaltzale Bazkuna'k, beste indar eta erakunde asko lotan egozala, eta erdereaz nasteko lanean eragoiela, erakutsi ederra emon euskun bere aldizkari au sortuaz, eta beronen orrialdeak Euskalerrri guztiko idazleai eskiñiaz.

Bizkaia, irugarrenez, aurrelari daukagu or euskera utsezko aldizkariak sortzen.

AKESOLO'tar LINO



BATZAR NAGUSIA

BATZAR-AGIRIA

Milla bederatzireun eta larogeta zazpigarreneko Urta-rrillaren ogeta bederatzigarrenean, Larreategi'tar Kolon'en kaleko 14'an, bigarren etxe-maillan, eskoian, EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren giza-etxean eta ogeigarren ordu ta laurena zala, urteroko BATZAR NAGUSIA egin zan.

Batzar orretarako bazkide gitxi batu zan, naiz eta urtean bein bakarrik izan.

Maiburu Zubiri'tar Iñaki Zuzendaria izan zan eta beragaz batera, maiko lez, Olazar'tar Martin Zuzendari-ordea ta Bilbao'tar Jon Erramun diru-zaiña.

Lendakariak asitzat emon eban Batzarra ta Egileor'ek aurreko Batzarraren Agiria irakurri eban eta bazkideak onartu eban.

Ondoren, Bilbao'tar Jon Erramun diru-zaiñak, joan dan urteko kontuen zeaztasunak emon ebazan eta, gero, gura dabenez azalpen geiago emon leikezala esku-artean eukezalako esan eban; une onetarako guztiak emotea lar eta aspergarri izango litzakela uste eban eta.

Jarraian, Zubiri'tar Iñaki'k urteroko ekintzen goraberak azaldu ebazan eta, bakoitzari buruz, azalpen baztuko:

1'go.—IKASTAROA. Emen ikasleen berakadea gelditzen doala dirudi ta udako ikastaroan aurrekoan beste ikasle izan ziran.

2'gn.—IPUIN SARIKETA. Arlo onetan lau ipuin sarituen izenak emon ebazan, baita euren egilleenak eta bakoitzak zenbat laurleko artu eban sari lez.

3'gn.—BIZKAIERAZKO EUSKAL-ASTEA. Bizkai'ko euskerearen alde lan egitekoa da. Onelan beroneri eutsi ta, bide batez, euskalki onetan jakituriaren arloa sakontzen dala; orretarako bost itzaldi emon eta bakoitzean gai berezia erabili zan. Aste ori Orrilla'ren bost egunetan bete zan, oi dan lez, ESKOLAPIOTARREN ikastxean.

Erabili ziran gaiak, egunak eta izlariak oneixek ziran:

5'gnean: "Erri-ipuiñak", Etxebarria'tar Juan Manuel.

6'gnean: "Lauaxeta'ren Olerkien Gizatasuna", Aroztegi'tar Luis.

7'gnean: "Eusko oiñetxeak", Kerexeta'tar Jaime.

8'gnean: "Euskerearen irakaskuntza", Uriarte'tar Xabier.

9'gnean: "Bizkaierazko aditza", Puxana'tar Pedro.

Itzaldi bakoitzaren ostean alkar-izketa egin zan eta une orretan itaun egoki ta naiko ugariak izan ziran.

Aurten be beste orrelako ASTEA egiteko asmoan gagoz. Oindiño gaiak eta izlariak izentatu barik daukaguz, baiña esku-artean ba-daukaguz gaiak eta euren artean egokien deritxaguenak aukeratuko doguz.

4'gn.—EGUTEGIA. Urtero lez, aurtengoa be, Bizkai'ko Aurrezki Kutxaren bitartez argitaratu dogu ta datorren urtekoa be laster atonduko da.

Euskaldunai irakurten eragiteko egutegia bide egokia dala ikusten dogu. Bestetik, leku guztietan onartua da.

5'gn.—"ZER". Illeroko aldizkari onen EUNgarren zenbakia igez bete zan, danok jakin zenduenez. Jarraitzeko asmoan aurkitzen gara baiña, naiz eta idazle bikaiñak euki, beste barri batzuen lanak gura geunkez, orrelan gaiak eta idaz-tankerak aldatuko litzakez danon onerako.

6'gn.—LAGUNTZAK. Bizkai'ko Foru Aldundia; Bizkai'ko Aurrezki Kutxa; Bilbao'ko Udala eta baita Eusko Jaurilaritza dira diru-laguntasuna emon dauskuenak. Eurei ezkerrek geure lana aurrera daroagu.

7'gn.—"KILI-KILI". Oneri buruz azalpen zeatz eta luzetsu emon eban, danok gogoratu edo jakin dagien. Ogei urte betetzen dira aurten sortu zanetik eta denpora orretan zein izan dan bere ekintza:

Lenengo aldizkari bat ume euskaldunen biotzean euskal-kontzientzia ta euskeraren zaletasuna biztuteko.

Gero, ume euskaldunai alfabetatzeko erea emon, au da ume bakoitzaren etxean sartu zan, ikastaro bat lez.

Azkenez, gaur egun, guzti ori ta geiago da, esaterako oraingo erdi euskalduna "benetako EUSKALDUN" biurtu.

8'gn.—GURE BATZORDEA. Onetzaz argitasun bat emon zan esateko Peña'tar Xabier eta Landakuela'tar Anton'en utsuneak betetzeko beste gazte bi, URIARTE'tar KEPA ta EZKURRA'tar XABIER, aurkitu genduezela ta geure Batzorderako aurkeztu ziran batzarkideai euren baimena eskatu jaken eta danak ontzat artu eban.

9'gn.—ORDEZTUTEA. Azkenez, datorren urterako oraingo batzordeko lau lagun ordezte "propozatzen" da, au da: Lendakaria, Diru zaiña ta maiko bi, oraingoak urte lar daroelako lanean eta gazteagoak bear diralako geure Alkartasun au aurrera eroateko; orretarako izaera ta odol barriak bear-bearrezkoak dira ta. Ori dala-ta, bazkideai eskatzen jake, euren laguneren arteko izen barriak ekarri dagizkuezala.

Amaitzeko, Itaun-erantzunen arloan sartugiñan, baiña ez eban iñork itaunik egin.

Eta beste barik, ogeta batgarren ordua zala, Lendakariak batzarra amaitutzat emon eban.

EGILLEOR'tar JON'ek

1986'ko EKINTZAK

Agur bazkide maiteok:

Urte guztietan lez, emen gaituzue barriro be, lengo urtean zear gure erakundeak burututako ekintzen gorabee-
rak eta aurtengo asmoen zeatzak zuei emoteko. Oikoa dan lez, asi gaitzean euskal irakaskintzari buruzko barriak emoten.

IKASTAROA

Azken urteotan oartu dogun ikasleen berakadea, igaz-ko ikastaldian be jazo da, gitxitze ori gelditzen doala badi-rudi be. Ikastaro onetarako izen-emoteak 175 izan dira.

Oikoa dan lez, lengo Garagarrilla'n Udako ikastaroan 50 ikasle izan doguz, au da, lengo urteko beste.

Alkarrizketaren jardunak aurrera doaz beti lez.

IPUIN-SARIKETEAK

Urtero ospatzen dan lez, ipuin-sariketarako deia egin dogu, baiña udabarrian egin bearrean, udagoian izan da.

Iru epai-maiko batu ziran, eta asmamena, aria, joske-rea, idazkerea, iztegia, eta aditzari buruzkoa kontuan artu-rik, ona emen epailleen erabagia:

1'go saria: "Ipuin-eske" Egillea, Onaindia'tar Santi.

2'gna saria: "Nire ganbaran aurkitutakoa", Egillea, Penades'tar Yosu.

3'gna saria: "Lukas'en erakutsi ona", Egillea, Erkiaga'tar Eusebio.

4'gna saria: "Gaur trinkatua, biar iraultzaille", Lejar-za'tar Sebastian.

Sariak oneik izan dira: 40.000, 30.000, 20.000, eta 10.000 laurleko.

Aurten be, ipuin-sariketeari jarraipena emoteko asmo-tan gara. Ipuinen ontasunari buruz, geienak mail onekoa izan dirala esan bear dogu, baita sarituen artean alde andi-rik ez dala izan be.

BIZKAIERAZKO ASTEA

Alde guztietatik baita gure Erri-erakundetik batez be, bizkaierari egiten jakon gaitzespen burubakoagaitik, gure erri-euskerearen alde aalegintzen gara ta aalegintzen jarraituko be.

Oi lez, Eskolapiotan (eta biokie emen gure eskerrona) ospatu genduan. Entzuleak igazko beste izan ziran gitxi gora-beera, 50 inguru. Uste, dogu aste orrek entzun-min andiagoa lortu bearko leukela, gaiak eta gai-emoilleen mailla kontuan arturik.

Itzaldiak Orrilla'ren 5'gnetik 9'gnerarte egunero izan ziran, eta gaiak oneik:

Orrilla'ren 5'gnean: "Erri-ipuiñak" Gai-emoillea, Etxe-barria tar Juan Manuel.

Orrilla'ren 6'gnean: "Lauaxeta'ren Olerkien Gizatasu-na" Arostegi'tar Luis.

Orrilla'ren 7'gnean: "Eusko oiñetxeak" Kerexeta'tar Jaime.

Orrilla'ren 8'gnean: "Euskerearen Irakaskuntza" Uriarte'tar Xabier.

Orrilla'ren 9'gnean: "Bizkaierazko aditza" Puxana'tar Pedro.

Oikoa dan ezker, itzaldi bakotxaren ostean, alkarriz-ketak izan genduzan, eta gauza zudugarri edo interesgarri asko esan zan.

Aurten be, bere garaian jakin-erazoko dautsuegu, lekua, egunak eta gaiak.

EGUTEGIA

Urtero-urtero aspalditik egiten dogun lez, egutegi onen atonketea geuk egin dogu, eta Bizkai'ko Aurrezki kutxak bere gain artu ebazan oradaintza ta banakuntzea. Jaungoi-koak gura ba'dau aurten be datorren urtekoa atonduko dogu, gure ustez, ekintza au egin daiteken ederrenetarikoa da, bide egokia dalako neurri baten euskaldunak irakur-teari eragiteko.

"ZER" ALDIZKARIA

Ona emen, bizkaierari ta jakintzari eusteko esku-artearen dogun tresna bikaiña. Amar urte igaro dira illeroko au jαιο zanetik, eta illerik-ille Olazar'dar Martin'en zuzen-daritzapean etxeetara eldu yatzue. Euskera argi, garbi ta errikoiaz agertzen da, bizkaieraz argitaratzen dan aldizka-ri bakarria izanik. Zuen artean luma trebe asko dogu, eta on izango litzakigu idazlanak bialdu dagiskuzuezan.

Igaz, eungarren zenbakiaren agerpena ospatu gen-duan, Larra'ko Karmeldarren lekaidetxean, eta anaitasu-nezko batzar atsegin baten ostean, bazkari batz azmaiera e mon geutsan ospakizun atsegin orreri.

LAGUNTZAK

Bazkideen urte-sariaren laguntzaz gaiñera, aipatu bear dogu emen, Bizkai'ko Aldundiaren eta Bizkai'ko Aurrezki Kutxaren diru-laguntza, baita Eusko Jaurlaritza ta Bil-bao'ko udaletik artutakoa be. Biokiez gure eskerrik beroe-nak, laguntza oneik gure asmoak aurrera eroateko bidea emoten daukuelako.

GURE BATZORDEA

Gure batzordekideen artean eriotzak dirala-ta, uts ba-tzuk izan doguz azkenengo urteotan, eta izan be, Peña'tar Xabier eta Landajuela'tar Anton'enak. Utsune bi orreik ordezteko, esondatzen edo proposatzen dautsueguz lagun oneik:

Uriarte'tar Kepa
Ezkurra'tar Xabier

OARRA

Datorren urtean, esondatuko edo proposatuko dau-tsuegu gure batzordeko oneik ordezte:

Lendakaria
Diruzaiña
Bokal bi.

ZUBIRI'tar IÑAKI'k

KILI-KILI 1986

- Ogei urte bete dauz Kili-Kilik 1986 urtean.

Kili-Kili leenengotan aldizkari bat zan, aldizkari bat eta personaje bat.

EUSKERAZALEAK

Elburua: ume euskaldunen biotzetan euskal kontzentzia eta euskera zaletasuna biztu.

- Kili-Kili gero ikastaro bat biurtu zan; alfabetatzeko ikastaro bat.

Ume euskaldunen euskerea alfabetatzearen premiñan egoala ikusirik, eta aldizkaria atara eziñean, Kili-Kilik salto egin eban aldizkaritik LAN ta LAN izeneko ingurraz-tietara. Eta kuaderno oneen bidez alfabetatzen asi zan.

Aldi aretako umeak naiz-eta euskeraz berbetan ondo jakin, euskeraz irakurten eta idazten ez ekien. Ez ziran, bada, euskaldun OSOAK. Arrisku andia euskeraren etorkizunerako. Eta utsune ori ondo bai ondo bete eban.

- Kili-Kili, gaur egun, guzti ori eta geiago da. Baiña esan daigun zerbait alfabetatzeari buruz aurrera egin baiño leen.

Alfabetatze arazoa gaur egun bere lekura eroan dabe: eskolara. Baiña eskolan alfabetatze lana zelan egiten da? Bizkaiko eskoletan eta bizkaieraz egiten dan Gipuzkoa-koetan "sagarrak jausi jatazan" esaten dauan umeari "sagarrak erori zitzaizkidan" esaten edo erabilten irakasten deutsoe. Bada ori alfabetatzea? Norberena bazterturik auzoarena ikastea alfabetatzea da?

Ba, zentzunaren kontrakoa dan ori egiten da euskera batuaren izenean.

Sistema baten barruan berba egin eta beste sistema baten idazten irakatsi... ez da pedagogiaren bidetik joatea, umearen buruan naaste borrarstea sortzea baiño. Gure umeak laster berba egitean alfabetabakoak izango dira, eta idaztean euskaldun barriak... Bide orretatik oker goaz. Bide orretatik ez dogu euskerea sendotuko.

Kili-Kilik, bere zuzendariaren bidez, esan eta esan diardu guzti ori egunkarietan, irratietan, telebistan, Eusko Jaurlaritzan... leku guztietan. Baiña entzungor egiten deu-

tsoe. Biztan dagoana ezin da ukatu baina entzungor egin bai. Azken urte oneetan euskereak ume euskaldunen ezpantetan atzerakada bildurgarria egin dau. Zaarren eta umeen arteko euskera-katea eten egiten bada... gureak egin dau. Betiko egin be!

Ogei urte geroago Kili-Kili'ren arazoa ez da leengoa bera. Leengoa ume euskalduna euskaldun OSO biurtzea bazan, oraingoa erdi euskalduna EUSKALDUN egitea da.

Gaur, gure umeak euskaldunak izan daitezen euskal ingurugiro baten premiñan dagoz. Eta orretan diardu Kili-Kili'k jo ta su bere ekintzakaz. Orretarako argitaratzen dau Kili-Kili aldizkaria; orretarako, Derio-ko uda-ikastarora; orretarako Kili-irratia Bizkaian eta Gipuzkoan; orretarako, Sariketak (Ezetx igarri, Ezetx jakin, Kontu-kontari...) milaka liburuxka banatuz; orretarako, Kili-argitalpenak ("Leonardo da Vinci", "Arrotz-ipuinak", "Jesus nazaretarra"... liburuxkak); orretarako Kili-jaiak, errietan euskeraz olgetan egiteko; eta orretarako Kili-Kili Eguna be, igaz bagillaren leenengoan, Araba-ko Aramaion.

- Amaitzeko. Kili-Kili'k ogei urte oneek betetzean ezin dau aaztu bizi izaten lagundu eutsan bat, eta aitatzera goaz: Euskerazaleak alkartea.

Kili-Kili kalean sortu zan, "San Anton-go zubi ondoan", eta babesaren bila noraezean ibili zan urte bitan. Euskerazaleak-eko atean jo ebanean, 1968'garren urtean, alkarte onek atea zabaldu eutsan eta etxe barruko berotasuna eskeiñi. Gero, Kili-Kili'k Euskerazaleak-en bularretik edan eban luzaro, Franco-ren denporan ez eukan beste diru-iturririk eta. Gaur egun ere danetariko laguntza dau. Eskerrik asko, ba, Euskerazaleak-eko danoi.

Ogei urte bete dauz Kili-Kili'k baiña aurrerantzean be praka motxakaz jarraituko dau.

RETOLAZA'tar J.A.'k

ZER

ALDIZKARIA

- ILLEROKOA (MENSUAL)
- BIZKAIERAZ IDATZIA (EN BIZKAINO)
- ERRI-JAKINTZAREN GAIK (MATERIAS POPULARES)
- IRAKURGAI ERREZ-ERREZAK (LECTURA FACIL)
- ARAZO SAKONAK AZTERTUTA (ANALISIS DE TEMAS)

ARPIDETU ZAITE!

ZER
EUSKERAZALEAK

Colón de Larreategui, 14 - 2.º - BILBAO-1

NIRE GANBARAN AURKITUTAKOA (2n. SARIA)

Orrexegaitik egiten dautset berba ipuinetan: ikusirik, ikusten ez dabelako ta entzunik, entzun ez ulertu egiten ez dabelako (Mt. 14,14).

Laskitutakoa bereala artezten ez bada, geroago ta nagi geiago izaten dala zuzentzen asteko, danak dakien zerbaít da. Ori ba nekiala-ta nengoan ni be. Baina ganbarea konpondu bear zala oartu nebanean konturatu nintzan benetan orretaz.

Geiago atzeratzea ez dala onuragarria izango-ta, gaur gogotsu nagoanez, bein oartutako a egiten asi naz arratsalde euritsu onetan. Baina, zelan diran gauzak, gero!, nekebakoa ezezík, atsegingarria jat igaroten nagoan ueña.

Gauzaren batzuk ezkerretara ta besteren batzuk eskumatare jarten diardudala, nire aurretikoren batek itxasorík itxaso ebillala sortaldetik ekarritako paper zar bat aurkitu dot, irudi koloretsuz jantzia ta izki dotorez idatzia. Ta izurri bat sortu jat: barau itzultzea. Egia esan, egingo dodan itzulpena ez da ona izango, bear bada, izkuntza au lantzea itzi nebala urterik ba da-ta. Baina nik neuk neure itzulpena egin daidan merezi dauala uste dot paper onek. Ona emen zer diñoan.

* * *

Troka baten jarria egoan Tsin Tang Tu'ren errotea, ezitasunaren laztanak gune-guneraino arturik eta eguzkiaren dizdiraz arroturik. Inor ez zan berataz oartzen, baina danak ekien an zana: ixiltasunaren arrotasunik-eza ta biotz emonkorraren taupaden oiartzuna. Bardin zan urik asko edo gitxi ekarteare errekeak, edo bat be ez, iñoiz ez zan lotzen Tsin Tang Tu'ren errotearen jarduna. Txirulari bikaina zan Tsin Tang Tu. Bere doinuaren deiaz eskualde aretako tximeleta guztiak buztartzen ebazan, eta oneik eragioen errotarriari. Bardindu-ezineko giroa sortzen zan txirulearen doinuaz, tximeleten egazkadeak sortzen eban aize lilluragarriaz eta errotarriaren irrintzi gor zoliaz. Zoriontsua zan Tsin Tang Tu txirulea jotez; eta zoriontsuak baita inguruko guztiak be, euren etxeetan urun-utsik inoiz ez zalako: ain zan eskuzabala Tsin Tang Tu!, naiko eban txirulea joteaz.

Baina beti egon oi da baltzuneraren bat edurtzan.

Jauregian ez zan Tsin Tang Tu, errotea edo txirulea aitatzen ez eban auturik. Tsin Tang Tu'ri buruz ainbeste berba entzun ondoren, bere jauregira ekarteare otu jakon Ten Ken Du buruzagiari. Gurari bizia eukan olako gizona bere ondoan izateko, jasan-ezina eban-eta, gainera, onena bere aginpean ez eukitea. Erabagi ta egiten asi zan.

Mezulari bat bialdu eban errotara Tsin Tang Tu'ri lenbaitlen bere jauregira izan eiten esateko agindua emenez.

Mezularia errotara eldu zanean, txirulea jo-ala ziar-duan Tsin Tang Tu'k, orma osoa jazten eban untzorriaren orririk gardenenean jarrita. Bein esatekoa esan ostean, bera ez joiala jauregira erantzun eutson Tsin Tang Tu'k mezulariari. Baina buruzagiak olan baeritxon, gertu egoala berak emon eiken zai guztia emoteko; ta zorrotxubete beroiolar ezaugarri lez buruzagiari eskatu eutson.

Egunsentiaz urten eta illunabarraz eldu zan mezularia jauregira. Tsin Tang Tu'ren erantzuna ezagutu ebanean odol gorritan jarri zan buruzagia, bere berbak ez eben egundo ezetzík artu-ta.

Urrengo goizean, bere semea ta bost gudari bialdu ebazan Tsin Tang Tu'rengana. Agindua zeatza zan: "Tsin Tang Tu ori emen izan bear da eguzkia barriro sartu baiño len".

Biderik naiko urrututa gero, errez aurkitu izan eben Tsin Tang Tu buruzagiaren semeak eta bost gudariek, errotako tximinitik urtetzen eban ke-ganean egoan bere txirulea jotzen. Esatekoa esan eta agindutakoa agindu, Tsin Tang Tu'k mezulariari adierazotako erantzun ber-bera emon eutsen buruzagiaren semeari ta bost gudariei be, bera ez joiala jauregira. Ez eben erantzun ori itxaroten, nai-ta euren baitan ondo baiño obeto jakin nondik urtengo eban Tsin Tang Tu'k. Arrapatu gura, baiña ezin; nork keganera igon? Asarre-bitsetan egozan buruzagiaren semea ta bost gudariak. Eta orrez gainera, buruzagiak ondo baeritxon, gertu egoala berak emon eiken gari guztia emoteko esan eutsen; eta zorrotxubete beroibelar, mesedez, ezaugarri lez buruzagiari eskatu eutsen.

Egunsentiaz urten eta gaua sartuta eldu ziran jauregira buruzagiaren semea ta bost gudariak. Tsin Tang Tu'ren

SARIKETA

erantzuna jakiñik eta bere semearen eta gudarien ganora-bakokeria ikusirik, arteak artu eziñik jarri zan buruzagia. Iñoiz iñork egin ez eutsona artu bear izan eban Tsin Tang Tu'rengandik.

Biamonean, buruzagia bera abiatu zan Tsin Tang Tu'ren errotarantz, gudari-talde guztia beragaz eroiala. Ikusgarria zan bere andikeria: zaldiak perlaz estalduta, elefanteak kirruz jantzita, urregorritzko geziak, ziririkiko ikurriñak... Labarpe, karabi ta karkabetan ezkutatu bear izan ziran buruzagiak zearkatu ebazan bideetako abere ta pizti guztiak.

Buruzagia urrunetik asi zan entzuten Tsin Tang Tu'ren txirulearen doinu gozoa, baiña zolia —inoiz baiño garbiagoa zan—. Doinuak dauanik erakargarriena ixiltasuna zala nabaritu izan eban orduan buruzagiak. Irakiten egoan bere barrua.

Bidea luze egin jakon arren, eldu zan errotara. Tsin Tang Tu'k txirulea jotzen ziarduan. Buruzagiak Tsin Tang Tu'k lenagotik be ba ekian bere asmoa agertu eutson. Tsin

Tang Tu'k berean jarraitu eban: txirulea jotzen. Goragoraka jarri zan buruzagia. Tsin Tang Tu txirulea jotzen... Ezina gertatu izan jakon geiago irautea buruzagiari —nainko egin eban bere guraria bein aitatzeaz—. Tsin Tang Tu lotu egiela agindu eutsen gudariei. Baina alperrik. Tximeleta-buztarriek eroien burdian jesarri ta txirulea jola joan Tsin Tan Tu; egaz, leunkiro, doiñuaren altzoan.

Kantari txirri-txirria,
igar-bidean orria...
Jauregi ontan, itxura danez,
askatasuna... irria.

OARRA: Nik aurkitu dodan moduan, idazti onek ez daroa izenpenik. Baiña emen jarritako azkenengo berbeari jagokon jatorritzko lerroari dautsola-dautsola apurtuta dago papera, ta izan daiteke norbaitek izenpetua izatea eta baita oraindik berbaren batzuk geiago esatea be.

PENADES ETA BILBAO'tar JOSU
(NIK NEUK)

LIBURUAK

Alboan agertzen diran zerrendako liburuak salgai dira «EUSKERA-ZALEAK» 'en idazkaritzan.

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º
Teléfono 423 53 22
B I L B A O - 1

Los libros al lado indicados pueden adquirirlos en las oficinas de «EUSKERAZALEAK».

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º
Teléfono 423 53 22
B I L B A O - 1

Nora Zoaz	600 laurleko
Giza Soñia	600 »
Iniciación al Euskera	600 »
Irakurgai errezpoltak I	100 »
(Zenbat Urte)	
Irakurgai errezpoltak II	200 »
(David Copperfield)	
Aurtxoia II	100 »
Eginkizunak I	100 »
Eginkizunak II	100 »
Eginkizunak III	100 »
Euskal Irakasbide laburra	600 »
(Gramátika X. Peña)	
Diccionario Ikas	700 »
Ipuñak	700 »
Ipuñak	800 »

BERRIO-OTXOA BAI, BERRIOTXOA EZ

BERRIO-OTXOA BAI, BERRIOTXOA EZ

Gure erritarra Santuen zerrendan ezarteko eguna laster elduko dan ezker, bere abizena zelan dan jakiñerazo nai neuke.

Liburu aundi ta lodi bate(ta)n auxe irakurri dot bere liturji-eguna ospatzen dan egunean, garilla-uztaillaren 4'an: "Balentin Berriotxoa doatsua, gotzain eta martiria".

Eusko-jatorri ta oiñetxeak maite be maite dodazan ezker, ezin parkatu daiket uts ori: "Berriotxoa". Izan be, "Berriotxoa"-k *la casita de Berrio* adierazoten dau erderaz. Baiña ez dago izen orretako oiñetxerik Elorrio'n, ez iñon. *Berio txikia* izeneko etxea bai, ba-dago, baiña oiñetxerik ez; beraz, jatorririk be ez. (*Txikia* izen orrek "la casa *accessoria* del linaje Berrio" adierazoten dau.)

Ez da, jakiña, Berriotxoa, *Berio-Otxoa* baiño: jatorri bi abizen bat eginda, abizen bikotxa. *Berio*, Elorrio'ko Berrio auzunako torre-etxea da, eta *Otxoa*, Bergara'ko oiñetxetik Elorrio'ko *Berio* oiñetxe orretara ezkonduetako gizonezkoaren abizena. Gizonezkoa, Joan de Otxoa izan zan, eta anderearen izena, Joana de Berrio. Eta aldi aretako orrelakoetan sarri egiten zanez, abizen biaz abizen bakarra egin eben: *Berio-Otxoa*, edo bardina dana, Berrio'ko Otxoa.

Artu, ba, boligrafoa, Bizkai'ko abade-prailleok, eta zuzendu uts ori.

KERETXETA

ONEEK ALA ONEIK?

ZER aldizkari onetako 12 ta 13'garren zenbakietan zerbait idatzi eben gai onetzaz Puxana ta Kerexeta jaunak.

Ondo dakigunez, Mogel'ek *oneek*, *orreek* eta *areek* erabili ebazan, askotarakoan. Izan daiteke ori errazoi gorengoa? "Dijo Blas y punto redondo" izango litzake ori. Baiña, *demokrasi*-aldi onetan, ez dakit errazoi orrek balio andirik izan daikenik, erriak bestetara erabili ezker. Izan bere, ikusi dagigun —barriro be— Orixe jaunak egin eban *Erizkizundi Irukoitza*'k Bizkaia'n jaso ebana ("Euskera", 1926, yorrailla-bagilla (sic); orain, apirila-ekaina):

Estos	= onek:	70 erritan
Estos	= oneek:	3 erritan
Estos	= oneik:	28 erritan
Esos	= orrek:	69 erritan
Esos	= orreek:	5 erritan
Esos	= orreik:	28 erritan
Aquellos	= arek:	49 erritan
Aquellos	= areek:	2 erritan
Aquellos	= areik:	28 erritan

3, 5, eta 2 errik beste guztiak baiño indar geiago izan daikee? *Fuerza Nueva*-zaleak izan ezker, bai, bearbada...

MEMAIA

BALENDIN ENBEITA (1986'gko. azillaren 20'n illa.)

— 1 —

Gure aizkide, Enbeita jauna,
jun da betiko gugandik,
bere irripar gozo-eztia
ez da agiri iñondik;
seme zintzo ta leial-argia
galdu dau ziñez Euzkadik,
Euzkera Ama be negarrez dago
bere eriotzaz mindurik.

— 2 —

Ainbat erritan ibillia zan
gazterik bertso-saioan,
jel-oiñarriak sakontzen gartsu
euzkoen biotz-gogoan;
Euzkadi eta Euzkerarekin
maite-minduta osoan,
bildurrik gabe ekion beti
bere gozoko arloan.

— 3 —

Biotz aundi ta gogo bizidun
euzkal idazle trebia,
bertsolaritzan goi-mallakoa,
maxu ta gidaria;
euzkera errez ta errikoa,
izkera gozo-bizia;
eredu legez agertzen iaku
gure Enbeita aizkidia.

— 4 —

Agur Balendin, agur lengusu,
izan zoruntsu zeruan,
zuk buka dozu beko bitzta
guk jarrai bear munduan;
Agur Balendin, guk danok beti
zaitugu izango gogan,
eta ekingo Euzkadi eta
Euzkera alde lan sutsuan.

GOIRIA

MAKAILLAUA PIPAR-AUTS ETA PATATAKIN (Lekeitio'ko Arranegi kaletik)

Nere amama Pillipak egiten eban lez esango dot. Ba eukan dendatxo bat Arranegi kalean, txikia baiña supermerkatu baten antzekoa: milla gauza ezberdiñak barruan ebazan.

Etxeko ateetan egoan bi metroko mostradore bat eta beronen baztartxo batean kaña-pattar boteilla bat kopatuakin. Atsoak etorten zirean:

— Pillipa, emoixu kaña kopatxu bat.

Sartun eta eskumara koipe-poto aundi bat, bertotik olixua emoteko. Aldamenian ogiak eta saku-patata bat. Barrurago txapiñak eta txanklo egurrezkoak kabanara joatekoak, artile-galtzerdiak eta narruzko bota untzedunak. Dindilizka txorizuek, koipe-puxikak, estekak eta gantzak gazitxuta. Baita albarketak be, umetxuentzako zapatatxuak eta eurak zirutzeko eta bazteko pastak. Baita “bola maravillosa”k be erropia garbiteko.

Txarritxu bat, eun kilokoa, ilten eban amabostean bein eta dendako bodegan eukazan arrizko aska batzuk urdaiak gazitzeko. Urdaiakin gazitzen ziran gantzak eta urdaiatzpikoak.

Makaillaua be saltzen eban eta ale eder bat egoten zan ateetako orman kale-ertzean. Makaillaua neguan eta urdaiatzpikoa udan. An joaten nintzan udan amamaren etxera eta egun baten, gizon bat pasa zan urdaiatzpikoaren aldamenetik esanaz:

— Arrinda'tar surraundixok ez dozak txarto bizi.

A urdaiatzpikoa saltzeko zan, baiña, guk be, amamaren illobatxuok, jaten genduan ondartzan baiñua artu eta gero.

* * *

Makailluaren buztana ez eban iñok be nai izaten eta gure amamak mostradore azpian gordeten ebazan. Dozena bat batzen ziranean, lurrezko kaxuela batean ipintzen ebazan, egur-ikatzagaz berotuta.

Onela:

Makaillaua ur otzetan beratu ogeita lau ordutan, zati meiak diranean. Lodiak ba'dira denbora geiago biar dabe. Zatiak zelakoak diran, egun bi be bai.

Olixua imiñi sartainean kipula gorriakin. Tipula gorritzen danean, piper-autsa bota koillarakada bat. Segundu bi naikoa dira, arin erretzen dalako piper-autsa.

Gero ura bota eta patatak imiñi zapal-zapal ebagita.

Patatak egiten diranean, orduan makaillaua bota azala gorantz dauala. Aurretik eskamak kendu makaillauari.

Amar minutu edo amabost naikoak dozuz. Gure izeko Gardalupe'k esaten eban ze:

— Patatak gitxiago eta gozeago.

ARRINDA'tar ANES

ITUN BIZI NAZ

Arana-Goiriren "Lenago il" olerkiaren doñuaz abestu daiteke.

Itun bizi naz,
beti naigabez,
nekegarri iat bizia;
Anai-tarteko
burruka ankerrak
zatitu du Alderdia;
pozez zorutzen
ta algaraz dakust
gure betiko etsaia;
naiago neuke
Euzkadi baiño
nerau lenago iltia.

Zar eta gazte,
gizon eta andre,
euzko endaren sendia;
ez daigun galdu
Arana-Goirik
itxi euskun ondoria;
zaindu gogotsu
ta itxaropentsu
beragandik ikasia;
ezergaitik ez
iñoiz ukatu
Euzkadiren izatia.

Oi euzkotarrak,
ene anaiak,
egin daiguzan bakeak;
alkartu eta
itxi betiko
banakuntzak ta asarreak;
zabaldu beingoz
Euzkadigaitik,
guztiok biotz-ateak;
alkarte onek
erreztuko dauz
Euzkadirentzat bideak.

Euzkadi dogu
guk Aberria,
ez España, ez Prantzia;
zapaldu eta
deusezta da
etsaiaren guraria;
ZIN egin daigun
il arteraiño
bere alde jokatzia;
obe dogu ba
ikusi baiño
Euzkadiren il-zoria.

GOIRIA

BIZKAIEREAREN ASTEA

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k urte guztietan lez, *Bizkaierearen Astea* ospatuko dau aurten be.

Aste onen elburua Bizkai'ko euskerea sakontzea, apaintzea ta edertzea da izan, baiña ondo dakigu izkuntza jakintzaren ezaugarri dana eta orrexegaitik Bizkai'ko jakintzaren gaiak be aztertzen doguz aste onetan. Gaiñera, astea berez Bizkai'ko gaietarako izan arren, begiratze zabala artuta, beste eskualde batzutako arazoak be sartu leitekez.

Beste alde batetik, urtero ospatzen diran urte-urrenak be kontuan artu-bearrekoak izaten dira. Aurten, esaterako, Jaurlaritza lenengoz sortu zala 50 urte doguz eta Lauaxeta il ebela be bardin 50 urte. Orra or itzaldiak egiteko zio bi, baiña LAUAXETA'ri beste egun berezi bat eskiñiko jako nungian.

Guztiok dakigu nor izan zan "Doctor Navarrus" esaten eutsoen Azpilikueta'tar Martin, Xabier Santuaren seni-dea. Au il zala aurten betetzen dira 400 urte, baiña oneri buruzko berbaldia beste urte baterako izten dogu. 50 urte dira baita, Gernika erre ebela be. Gai au be datorren urterako geratzen da.

Euskaldunen Antropolojia edo Giza-Iztiari begira ba-dago naikoa zer-esan. Ortik artzen dogu Arrantzaleen oiturak aztertzeo gai bat.

Eta ezin itzi alde batera Bizkai'ko Elerti edo Literatura, eta kondaira orietan izan zan talde langille ta gogo-emoille baten izena aitatu barik, Jaungoiko-Zale Taldea daukagu gogoan beste berbaldi baterako.

BIZKAIEREAREN ASTEA-1987

- Orrillaren 4'an, astelena:** Eusko-Jaurlaritzaren 50 urteak. ZUBIKARAI'tar Augustin'ek.
- Orrillaren 5'ean, asteartea:** Arrantzaleen oiturak Bizkaia'n, ERKOREKA'tar Josu Iñaki'k.
- Orrillaren 6'an, eguastena:** Euskal-liburuen eta aldizkarien argitalpenak gaur, LEGARRETA'tar Josu'k.
- Orrillaren 7'an, eguena:** Jaungoiko-Zale Taldearen kondaira laburra ta lanak. ONAINDIA'tar Santi'k.
- Orrillaren 8'an, barikua:** GERNIKA SUTAN (50 urte). AURRE-APRAIZ'tar Barendin'ek.

ORDUA: ZORTZIRETAN

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1

Gure alegiña Bizkaiarentzat da.

Gaur, beti lez, gure erriaren billaketa-lanari laguntzeko gagoz.

Gaur, aurrera joteko sasoiari, itxaropena oztopoen gainetik jarrita,
otseintza ta laguntzarako gure gogorik onena,
barriro ta geiagotuz sortzen da.

Gaur, eta egunero, Bizkaiaren izena omentsu eta,
batez be, emoneko berba lez daroan
Aurrezki Kutxaren lana, indarra ta amesak, ez dabe utsik egingo.

Berari erantzuten jarraituko dogu.



TXURRUKA'ri oroitarria Areetan.
Itxasoaren oldarra gelditzen,
gizonaren neurribako
alegiña:

BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA

Bizkaiko Foru Diputazioak sortu eta hultzatutako Erakundea.